

ERABAKIA, GETXO RUGBY TALDEA KLUBAK EUSKADIKO ERRUGBI FEDERAKUNDEAREN DIZIPLINA BATZORDEAK 2016KO APIRILAREN 6AN HARTUTAKO ERABAKIAREN KONTRA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA EZESTEKOA. ERABAKI HAREN BIDEZ, SUB16 EUSKAL LIGAREN 2. FASEAN MARZOLA R.C. RIOJA - GETXO ARTEA RT TALDEEK D TALDEAN JOKATUTAKO PARTIDAREN IRABAZLE IZENDATU ZEN R.C. RIOJA TALDEA, 45-5 TANTO KOPURUAREKIN, LEHIAKETAKO SAILKAPENEAN BOST (5) PUNTU DAGOZKIOLARIK. BESTALDE, PARTIDAREN GALTZAILE IZENDATU ZEN GETXO ARTEA RT B TALDEA, 5-45 TANTU KOPURUAREKIN, LEHIAKETAKO SAILKAPENEAN LAU (4) PUNTU KENDUZ.

---

Espediente-zenbakia: 8-3/2016

### AURREKARIAK

**Lehena.**- 2016ko apirilaren 20an Euskadiko Errugbi Federakundearen Diziplina Batzordeak 2016ko apirilaren 6an hartutako erabakiaren kontrako errekurtsua aurkeztu zuen [REDACTED] jaunak, Getxo Rugby Taldeko presidenteak. Erabaki haren bidez, Sub 16 Euskal Ligaren 2. fasean Marzola R.C. Rioja – Getxo Artea RT B taldeek jokatutako partidaren irabazle izendatu zen R.C. Rioja taldea, 45-5 tanto kopuruarekin, lehiaketako sailkapenean bost (5) puntu dagozkiolarik. Bestalde, partidaren galtzaile izendatu zen Getxo Artea RT B taldea, 5- 45 tantu kopuruarekin, lehiaketako sailkapenean lau (4) puntu kenduz, jokalaria zerrendan behar ez bezala sartu zituelako Partiden eta Lehiaketen Araudiaren 31. artikulua, aurrerantzean PLA).

Era berean, erabaki horren bidez 200 euroko multa ezarri zitzaion Getxo Artea RT taldeari (PLAren 81. artikuluko d) letra).

**Bigarrena.**- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean KJEB) errekurtsua izapidetzea eta Euskadiko Errugbi Federakundeari espedientea



1.- Kirol Diziplina Batzordeak emandako ebazpena legez guztiz baliogabea dela, defentsarako eskubide konstituzionala urratzen delako, derrigorrezkoa den audientzia-izapidea eman ez izanagatik eta horretarako ezarritako legezko prozedura guztiz baztertu izanagatik. Hori guztia, Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62.1 artikulua aplikatuta, eskubide eta askatasun konstituzionalak urratzen dituzten eta ezarritako legezko prozedura alde batera utzita egiten diren administrazio-egintzak legez baliogabeak direla xedatzen baitu.

Errekurso-egileak adierazi duenez, Batzordeak ez du ebazpena diziplina-ahalmena arautzen duen araudian ezarritako prozedura jarraituz eman (ekainaren 11ko 14/1998 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoa, 116. artikulua; urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretua, Kirol Diziplinako Araudia arautzen duena, 1., 2. eta 15. artikulua eta II. eta III. kapituluak; Euskadiko Errugbi Federakundearen Estatutuak, V. titulua; Euskadiko Errugbi Federakundearen Kirol Diziplinako Araudia, II. titulua, I., II. eta III. kapituluak), *"ez delako espedientea ireki, ez delako hala egiteko agindu eta ez delako derrigorrezko audientzia-izapidea eman"*.

Hain zuzen ere, audientzia-izapidea eman ez denez, legez guztiz baliogabea da, babesgabetasuna eragin delako. Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluan bildutako funtsezko eskubidearen kontra doa hori, Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren doktrinak eta jurisprudentziak hainbat epaitan ezarri duten legez.

2.- Baliogabetasuna aitortzen ez bada, hori nekez gerta badaiteke ere, zigorra ezartzeko erabakiaren inguruko alegazioak egin direla:

*"Sub 16 kategoriako D taldea sailkatzeko fasean postu txarrenak lortu dituzten 4 taldeak biltzen dituela azpimarratu beharra dago, beti ere begirune osoz esanda. Beste modu batera esanda, prestatzen eta ikasten ari diren taldeak*

*biltzen ditu eta jokalaria guztiek jokatzea du xede, pixkanaka-pixkanaka errugbira jokatzen ikasteko. Multzo honetan berdin dio emaitzak.*

*Hori guztia esanda, egiaztatuta geratu da Getxo taldeak aurrea hartu zuela eta aurkako taldeari eta jokalaria Sub 18 kategoriako jokalaria bat zeukala esan ziela eta jokalaria horrek ezin duela bere kategorian jokatu (bere tamainagatik). Jarraian, jokalaria horrek partidaren parte hartzeko baimena eskatu zuen. Gainera, Getxo taldeak ez zeuzkan 15 jokalaria eta jokalaria horrekin errugbi talde batek derrigorrez 15 jokalaria izan behar dituelako baldintza beteko zitekeen.*

*Aurkako taldeak, multzo honen izaera parte-hartzaile kontuan hartuta, baimena eman zuen eta ez zuen inongo oztoporik jarri.*

*Jokozaina berak, bi klubek arteko adostasuna ikusita, zalantza egin zuen baina ez zuen oztoporik jarri. Dei batzuk egingo zituela esan zuen.*

*Partida amaitu zenean, jokalaria jokatu ezin zuela abisatu zuela adierazi zuen jokozainak. Getxo taldea eta aurkako taldea ez ziren enteratu eta ez zitzairen abisatu.*

*Gainera, jokozainak esandakoaren arabera, partida bukatzeko gutxi falta zenean konturatu zen jokalaria futbol-zelaian zegoela.*

*Hori guztia zentzugabekeria hutsa eta arduragabekeria da partidaren aldetik, honako arrazoi hauengatik:*

- a) Jokozainak diona egia bada, partida hasieran egiaztatu behar zuen, jokalaria joka ez zezan.*
- b) Getxo taldeak erreserbako jokalaririk ez zeukala ikusi behar zuen jokozainak.*
- c) Jokozainak dio ez zela adi egon jokalaria jokatzea ekiditeko eta zaila da hori sinestea.*
- d) Ez da sinesgarria aurkako taldeak jokozainaren ezezkoaren berri eman ez izana, Getxo taldearen asmoaren berri baitzuten.*

*Partida bukatu zenean, aurkako taldeak berak esan zion jokozainari ez zutela inongo eragozpenik eta ez zeukatela ezer esateko".*

*"Aktan kontatutako egitateetatik, honako hau uler daiteke argi eta garbi:*

- 1.- Ez zen egon jokalaria zerrendan behar ez bezala sartzeko asmorik.*
- 2.- Ez zen jokalaria zerrenda ezkutatu.*
- 3.- Aurkako taldearen baimena lortu zen eta hasiera batean jokozainarena ere bai.*
- 4.- Getxo taldeak fede onez jardun zuen denbora guztian.*

*Horregatik ez zen egon engainurik, errurik edo arduragabekeriarik Getxo taldearen partetik eta are gutxiago fede txarrik.*

*Horrenbestez, ez dago arauren bat hautsi dela ulertzeko beharrezkoa den elementurik, arauak hausteko nahitasunik egon ez delako.*

*Beraz, ez dago arauren bat hautsi dela ulertzeko beharrezkoa den elementurik, jokalarian zerrendan behar ez bezala sartzeko asmorik egon ez delako. Hori dela eta, ezarritako zigorra baliogabetu beharko litzateke".*

**Laugarrena.**- Aurkaratu den erabakiaren ustezko baliogabetasunari dagokionez, ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak (116. art), urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuak, Kirol Diziplinako Araudia onesten duenak (II. titulua), Euskadiko Errugbi Federakundearen Estatutuek (V. titulua) eta Federakunde horren Kirol Diziplinako Araudiak (19. eta 30. artikulua) diziplinazko bi prozedura daudela diote: ohiko prozedura eta ezohikoa. Ezohiko prozedura lehentasunaren eta sumarietatearen printzipioetan oinarrituta dago eta batez ere jokoaren edo lehiaketaren arauak hausten diren kasuetan aplikatu daitezke.

Zehazki, Kirol Diziplinako Araudiaren 30. artikulua honako hau dio prozedura horren inguruan:

*"1.- Jokozainek, epaileek edo Federakundeak jokoaren eta lehiaketaren arauak betetzen direla kontrolatzeko agindu dien pertsonen hartutako erabakien aurkako erreklamazioak arau-hausleak edo bere klubaren ordezkariak dagokion akta jaso eta berrogeita zortzi orduko epean aurkeztu beharko dira. Nolanahi ere, zein proba egitea nahi duen adierazi beharko du alegazioen idatzian.*

*2.- Diziplina Batzordeak aurkaratzea edo erreklamazioa ebatziko du bost eguneko epean, aurreko epea bukatzen den egunetik kontatzen hasita.*

*Epe hori luzatu egin ahalko da proposatutako eta onartutako proba bost eguneko epean egin ezin bada, proba-proposamen hori jasotzen den egunetik kontatzen hasita. Edonola ere, epea ezingo da hamar egunetik gorakoa izan".*

Ondorioz, diziplinazko araudi osoak eta zehazki Federakundearen Diziplinako Araudiak jokoaren edo lehiaketaren arauak hausten direnean

ezohiko prozedura aplikatzea aurreikusten dute, hori izanik errekurtsio honen xedea. Bizkortasuna da prozedura horren bereizgarrietako bat, lehiaketa normaltasunez eta etenik gabe egiteko. Ohiko prozeduraren epeak eta izapideak murriztea ahalbidetzen du, Konstituzioaren 24. artikuluan ageri den defentsarako funtsezko eskubidea urratu gabe. Izan ere, audientzia-izapiderako ohiko epea murrizten denean ere, gainerako epeen moduan (EEFDBk berak ebazpena emateko duen epea, esaterako), interesdunei 48 orduko epea ematen zaie alegazioak egiteko.

Legeak diziplina-espeditentea izapidetzeko ezarritako prozedurari dagokionez, EEFDBk bost eguneko epearen baitan eman zuen ebazpena (2016ko otsailaren 6an), ordezkariak akta jaso (2016ko otsailaren 2an) eta 48 orduko (2016ko otsailaren 4an) kontatzen hasita.

Horrenbestez, azaldutakoa kontuan hartuta, honako hau ondoriozta dezakegu:

1.- Errekurtsioa aurkeztu duen klubak bazekien aktan zer jartzen zuen, klubaren ordezkariak otsailaren 2an (partidaren egunean) sinatu zuela ageri baita espeditentean.

2.- Horrenbestez, errekurtsioa aurkeztu duen klubak araudiak ezarritako 48 orduko epea izan zuen defentsarako eta alegazio egokiak aurkezteko. Ez zuen defentsarako eskubide hori baliatu. Hala ere, Batzordeak Euskadiko Errugbi Federakundearen Kirol Diziplinako Araudiaren 30. artikuluan prozedura mota honetarako bildutako izapideak egin ditu eta epe barruan (5 egunetara) eman du ebazpena. Beraz, ezin da esan babesgabetasunik egon denik eta prozedurarik jarraitu ez denik.

**Bosgarrena.**- Behin diziplinazko prozeduraren legezkotasuna zehaztuta, errekurtsio-egileak planteatu dituen gainerako gaiak aztertu beharra dago.

Jokalariak zerrendan behar ez bezala sartzeko asmorik egon ez zela adierazi du errekurtsio-egileak, fede onez eta aurkako taldearen baimenarekin

jardun zutela. Azken batean, engainurik eta errurik egon ez zela adierazi du eta zuzenbide penalaren oinarria den erruduntasunaren printzipioa aipatu du. Konstituzio Auzitegiak eta Auzitegi Gorenak beren doktrinan hainbat aldiz adierazi duten legez, zigorra ezartzeko prozedurei eta diziplinazko prozedurei aplikatu behar zaiela ere adierazi du, zenbait xehetasun gorabehera.

Dena den, alegazioetan eta jokozenak egindako aktan adierazitakoa ikusita -azken horrek egiazkotasun presuntzioa du (PLAreb 67. artikulua)-, kontrakoa ondorioztatu daiteke. Errekurtsoa aurkeztu duen klubaren ordezkariak jokalaria zerrendan behar ez bezala sartu izanaren berri eman zion jokozenari. Azken horrek horixe baieztatu zuen, klubari arau-hauste bat izan zitekeela esan eta EEKrekin kontsultatu ondoren.

Horrenbestez, argi dago klubaren ordezkariak nahitasunez jokatu zuela: bazekien jokalaria ezin zuela lehiaketari zegokion kategorian (sub 16) parte hartu, bere adinagatik eta zeukan lizentzia motagatik (sub 18) eta hala ere, jokalaria zerrendan sartu zuen.

Arau-haustea eragin zuten arrazoiak lirateke beste gai bat, ustez didaktikoak direnak eta jokalaria zerrendan sartzea ahalbidetzen zutenak.

Baldintza horiek ez dute batere garrantzirik, ez baitute erruduntasuna baztertzen, ezta aldatzen ere, jokabide engainagarria arintzeko. Gauza da zuzenbidearen aurkakoa den (administrazioa-legezkoatasunaren aurkakoa da) ohiko (PLAren 30.a) artikuluan ageri da arau-haustea) ekintza bat egin dela (jokalaria zerrendan behar ez bezala sartzea, errekurtso-egileak aitortu duen legez), errua egotz dakiokeena (argi dago nahita egin zela) eta zigortu daitekeena (31.c) artikuluan arau-hauste horri aplikatu beharreko zigorra ageri da). Hau da, zilegi ez den administrazioko ekintza da, jokalaria zerrendan behar ez bezala sartu zenean nahita egin baitzen.

Ondorioz, gehienbat jokalaria zerrendan behar ez bezala sartzeko eta jokozenak esandakoa ondo ulertzeko arrazoiekin lotutako alegazioez aparte, Getxo Rugby Taldea klubak ez zuen aurkeztu jokozenen jardunak duen

egiazkotasun presuntzioa (PLAren 67. art.) indargabetzen duen frogarik. Horrenbestez, zigorra zuzenbidera egokitzen dela ondorioztatu da. Hala, Sub 16 Euskal Ligaren 2. fasean D taldean Marzola R.C. Rioja – Getxo Artea RT B taldeek jokaturako partidaren irabazle izendatu da R.C. Rioja taldea, 45-5 tanto kopuruarekin, lehiaketako sailkapenean bost (5) puntu dagozkiolarik. Bestalde, partidaren galtzaile izendatu zen Getxo Artea RT B taldea, 5-45 tanto kopuruarekin, lehiaketako sailkapenean lau (4) puntu kenduz. Horrez gain, 200 euroko isuna ezarri zaio klubari, egindako arau-hausteagatik, arau-hauste oso larritzat jo behar baita. PLAren 30.2, 31.c) eta 81.d) artikuluetan ezarritakoari jarraituz ezarri dira zigor horiek.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

### **ERABAKI DU**

Getxo Rugby Taldea klubak Euskadiko Errugbi Federakundearen Kirol Diziplina Batzordeak 2016ko apirilaren 6an hartutako erabakiaren kontra aurkeztutako errekurtsua ezestea. Erabaki haren bidez, Sub 16 Euskal Ligaren 2. fasean Marzola R.C. Rioja – Getxo Artea RT B taldeek jokaturako partidaren irabazle izendatu zen R.C. Rioja taldea, 45-5 tanto kopuruarekin, lehiaketako sailkapenean bost (5) puntu dagozkiolarik. Bestalde, partidaren galtzaile izendatu zen Getxo Artea RT B taldea, 5-45, tanto kopuruarekin, lehiaketako sailkapenean lau (4) puntu kenduz, jokalaria zerrendan behar ez bezala sartu izanagatik, eta 200 euroko zigorra ezarri zitzaion klubari.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, erabakiaren aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo errekurtsu-egileak nahi badu bere helbidearen arabera dagokion epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko



auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 22a

JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea